

EMAKUMEEN ETXEA PROIEKTUARI BURUZKO 9. HAUSNARKETA-JARDUNALDIAREN AKTA

12/2010 BILERAREN AKTA

Eguna: 2010eko abenduaren 10a

Ordua: 16:00

Tokia: Donostiako Emakumeen Etxea

BILDUTAKOAK:

- ✓ Emakumeak eta Hiria Foroa (1 ordezkari)
- ✓ EHUko Gizarte Kontseilua (1)
- ✓ Plazandreok (1)
- ✓ Dandai (1)
- ✓ Plazandreok eta Emakumeak eta Hiria Foroa (1)
- ✓ Asade (1)
- ✓ Independentea (2)
- ✓ Garraldi (2)
- ✓ Aranzazu Etxekoandreen Elkarte (2)
- ✓ Emakumeen Etxea Elkarte (1)
- ✓ Gehitu (1)
- ✓ Emakumeen Etxea Elkarte (1)
- ✓ Dandai (1)
- ✓ Bilgune Feminista (2)
- ✓ Hamaikabat (1)
- ✓ EAJ/PNV (1)
- ✓ Emakumeen Etxea Elkarte (1)
- ✓ Farapi (1)
- ✓ Hizkuntz normalizazio, berdintasun eta lankidetzako zinegotzi ordezkaria (1)
- ✓ Zinegotziaren aholkularia (1)
- ✓ Berdintasuneko teknikaria (3)
- ✓ Emakumeen Etxeko koordinatzailea (1)

Berdintasuneko teknikari batek hasiera ematen dio hausnarketa-saio berri honi. Ezer baino lehen, jarraitu beharreko dinamika azaltzen du: lehendabizi, orain arte Etxean egindakoa baloratuko da eta, gero, orain arte iritsitako akordioak eta lortutako hitzarmenak berrikusiko dira. Gero, Emakumeen Etxeari buruzko Instrukzioari aurkeztutako alegazioak aztertuko dira eta, bukatzeko, erronka berriak eta ekintzarako dinamika berriak planteatuko dira.

1. Emakumeen Etxearen lehen hilabeteari buruzko balorazioa.

Etxeko koordinatzaileak azaltzen du Etxean lehen hilabetean gertatutako guztia,aldi berean, balorazio bat eginez. Errepaso orokorra egiten da, bai egindako ekintzena bai abian jartzekoak diren zerbitzuena, eta balorazio bat egiten da gurera hurbildutako emakumekopuruaz. Emaitzak oso ontzat jotzen dira. Izan ere, zenbakiak aditzera ematen dute, denon ahaleginari eta eskainitako ekintza-kopuru handiari esker, emakume asko hurbildu direla. Azpimarratzen da, bestalde, emakume asko etorri direla informazio orokorraren bila, komunikabideen bitartez eta ahoz aho egindako zabalpen-lanari esker.

2. Azken bilera arte iritsitako akordioen errepasoa.

Etxearen printzipioak errepasatu dira, bai eta zerbitzuak emateko irizpideak ere, batez ere azpimarratuz azken jardunaldian hartutako erabakiak:

- **Kogestio Organoaren osaera:** Udalaren 3 ordezkari (zinegotzigoa, zuzendaritza eta atalburua) eta Emakumeen Etxea Elkartearen beste 3 ordezkari; azken hauetatik, bat, gutxienez, Berdintasun Kontseiluko kidea izango da eta beste bat, Emakumeak eta Hiria Forokoa).
- **Hitzarmenak:** Hitzarmen guztiak Kogestio Organoaren eskutik pasako dira. Hitzarmen estrategikoak hiru aldeek sinatuko dituzte (Udalak, Emakumeen Etxea Elkartek eta hirugarren aldeak). Aldeek autonomia izango dute hirugarrenekin hitzarmenak sinatzeko, adostutako esparruaren barruan beti ere.
- **Lan-batzordeak:** Hiru lan-batzorde sortzea erabaki zen: kogestioa, ekintzak eta zabalpena. Abian dira jada.

3. Emakumeen Etxea erabiltzeko instrukzioei aurkeztutako alegazioak.

Hausnarketa-prozesua azkartzeko, alegazio guztiak zazpi multzotan banatu dira: 1- Hizkuntzen erabilera, 2- Araudia ez, instrukzioa bai, 3- Okendorako bakarrik, 4- Koordinatzaile/dinamizatzailearen figuraren inguruan, 5- Emakumeen elkarre-mugimendua ordezkatua izatea, 6- Ordutegia eta gelen erabilera eta 7- Gune komunak/Berdintasun Saila.

3.1 Hizkuntzen erabilera.

Beste artikulua bat sortuko da. Bertan aditzera emango da zein izango diren bileretan eta dokumentuetan erabiliko diren hizkuntza ofizialak —euskara eta gaztelania—, eta haietan euskara erabiltzea sustatuko dela.

3.2. Araudia ez, Instrukzioa bai.

Idazkaritzarekin gaia aztertu eta gero, erabaki da aurrerantzean, Emakumeen Etxearen erabilera arautzeko erabakiez ari garenean, ez dugula Araudia esango, Instrukzioa baizik. Bestela, epeak oso luzeak izango lirateke eta, gainera, izapideak ere desberdinak dira.

3.3. Okendorako bakarrik.

Alegazio honi dagokionez, erabaki dugu Instrukzio honek bakarrik izango duela indarra Emakumeen Etxea Okendo kaleko eraikinean dagoen bitartean.

3.4. Koordinatzaile/dinamizatzailearen figuraren inguruan.

Etxeko koordinatzailearen figura zehaztu egin da, aurreko Instrukzioaren idazkerak gaizki-
ulertuak eragin zitzaizkeen-eta. Bere egitekoak zehaztu eta gero, erabaki da ez dagoela arazorik izen ofiziala "koordinatzaile" izateko, Berdintasun Atalaren eta Emakumeen Etxea Elkarrearen arteko koordinazioa egiten baitu Etxean, zubi baten antzera.

Erabaki da, baita ere, gatazkarik dagoenean, erabakiak ez dituela koordinatzaileak hartuko, baizik eta gai horri buruz eztabaidatu behar duen lan-batzordeak. Koordinatzaileak eramango ditu lan-batzordera proposamen gatatzatsak.

Bestalde, erabaki da, arrazoi guztiz operatiboengatik lan eraginkorra egiteko ezintasunaren aurrean, koordinatzaileak, Etxeko guneak uzteko orduan, hausnarketa-jardunaldietan ezarritako irizpide-esparrua errespetatuko duela. Hala, bada, koordinatzaileak ez du zertan igorri jasotzen dituen proposamen guztiak, baina, komunikazioa eta baterako pentsamendua sustatzeko, astean behin jakinaraziko du, emailaz, zer ekintza egin behar diren Etxean.

Horretaz gain, koordinatzaileak Etxean aurkeztu diren proiektuak, onartu zein baztertuak, aurkeztuko dizkio hilean behin bilduko den Ekintza Batzordeari, komunikazio hobea sustatzeko.

Etxeko Koordinatzaile lanpostuari dagokionez, kontratua Donostiako Udalak egiten du eta, hortaz, Elkarteak jarraibide batzuk baino ezin izango ditu eman, irizpide moduan erabiltzeko kontratazioan, baina, beti ere, Lan Eskaintza Publikorako edo lan-poltsarako ezarritako klausulak errespetatuz. Elkarteak ezin du, inola ere, irizpiderik ezarri.

Zehaztapen horiek guztiak Instrukzioko artikuluetan bilduko dira, alegazioak jaso dituzten paragrafoetan zuzenketak sartuta.

3.5. Emakumeen elkarte-mugimendua ordezkaturia izatea

Erabaki da lan-batzorde guztietan parekotasuna lortzen saiatuko garela, hau da, udal ordezkarien kopurua eta elkarte-mugimenduaren ordezkariena bera izatea. Parekotasuna helburu izanda ere, bilerak egin ahal izango dira baldin eta udal ordezkariak eta elkartearenak badaude, nahiz eta parekotasunik ez izan.

Elkarte-mugimendua ordezkaturia dagoela jotzeko, honakoek egon beharko dute bileran: Emakumeen Etxea Elkarteko kide batek, Emakumeak eta Hiria Foroko kide batek eta Berdintasunerako Emakumeen Kontseiluko kide batek. Ezinbestekoa izango da Foroko eta Kontseiluko kideak Emakumeen Etxea Elkarteko kide ere izatea.

Gero argi utzi da zer desberdintasun dagoen Emakumeen Etxeko Batzar Nagusiaren eta Emakumeen Etxea Elkarteko Batzar Nagusiaren artean: lehenengoan, elkarteko kideek eta Foroko eta Kontseilukoek parte hartzen dute; bigarrean, berriz, elkarteko kideek baino ez

dute parte hartzen. Desberdintasun horren arrazoa hauxe da: hiriko feminista guztiak bildu nahi ditugu Emakumeen Etxea proiektuan eta horregatik ez da ezinbestekoa Elkarteko kide izatea. Hala, ahalik eta emakume gehien batu ahal izango dugu.

3.6. Ordutegia eta gelen erabilera.

Emakumeen Etxearen ohiko ordutegia hau da: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 21:00etara. Hala ere, hala erabakiz gero, Etxea ohiko ordutegitik kanpo ere ireki liteke, giltza bat daukagulako, momentuz, eta, hortaz, Etxeari lotutako edozeinek haren ardura bere gain hartu eta etxea ireki dezake. Etxeko giltza bat baino gehiago izango dugun argitzeko, aditzera eman da baditugula beste kopia batzuk, baina, momentuz, sotoan lanean jarraitzen duten gremioek dituztela. Beraz, haiek itzultzen dizkigutenean, giltza gehiago izango ditugu. Erabaki genuen, baita ere, ekintzak ohiko ordutegitik kanpo egiteko eskaerak, ahal dela, hamabost egun lehenago egin behar direla.

Emakumeen Etxea proiekturako aurreikusita dagoen dokumentazio-zentroa dela-eta, azaldu da, Okendoko eraikinean nahiko lekurik ez dagoenez, Villa Soroan gaudenean egingo dela.

3.7. Gune komunak / Berdintasun Saila.

Alegazio batzuetan eskatzen zen 15. artikulua izena aldatu eta "Guneak kogestionatzeko organoa" erabili beharrean "Kogestio Organoa" erabiltzeko. "Guneak" argibidea erabiltzen zen Idazkaritzak uste zuelako zehaztu beharra zegoela, Berdintasun Saila Emakumeen Etxean dagoelako eta ez delako kogestionatua; aitzitik, autonomia funtzionala du. Horregatik zehazten zen "guneak". Artikulua aldatzea erabaki da. Aurrerantzean, "Emakumeen Etxearen Kogestioa"z hitz egingo da, Sailaren autonomiari eutsita. Idazkaritzari kontsultatuko zaio.

4. Hurrengo erronkak.

Emakumeen Etxean egingo diren hurrengo ekintzen egutegia sortuz joateko ideia eman da. Zinegotziak proposamen batzuk egin ditu Iparreko emakumeek Hegoko emakumeak esplotatzearen inguruan lan egiteko. Emakumeen salerosketaren gaia ere atara da, baina

gero erabaki da proposamen horiek guztiak zehatzago lantzea Ekintza Batzordean. Hala, dei egiten zaio Batzordeari biltzeko, hurrengo hiruhilabeteko programa sortuz joateko.

Denon artean landu eta adostu ditugun alegazioen idazkera onartzeko jarraitu beharreko protokoloari dagokionez, erabaki da testua berriro bidaliko dela, emailez, eta, gehienak ados badaude ekarpen berriekin, legezko prozedura guztiak egingo direla testu hau Donostiako Emakumeen Etxearen Instrukzioa izateko, Etxea Okendo kalean dagoen bitartean.

Bilera 19:10ean amaitu da.

Donostia, 2010eko abenduaren 17a